

# BASKEPENSIONES ERRENTA FINKOA GAPI

## INBERTSIO POLITIKA

Inbertsio-profil kontserbadorea duten pertsonentzat. Epe ertain-luzean etekin on bat lortzera bideratutako plana da. Batez ere errenta finkoan inbertitzen du, eta batez besteko iraupena 2 eta 8 urte bitartekoa izaten da.

## 2020/04/30era Errentagarritasunak UTB

1 hilekoa*	3 hilekoa**	Urtekoa*	Urte 1	Urte 3	Urte 5	Urte 10
%1,51	%-3,39	%-2,75	%-0,99	%-0,26	%-0,37	%2,16

\*Urtebete baino epe laburragoak diren errentagarritasunak ez dira urtekotzen.

2020	2019	2018	2017	2016	2015	2014
%-2,75	%3,98	%-2,66	%1,26	%1,48	%-1,38	%6,55

\*Iraganeko errentagarritasunek ez dute garantizatzen etorkizuneko errentagarritasunik.

## 2020/04/30era Estatistikak

Lurrunkortasun 1 urte**	%2,90
Lurrunkortasun 3 urte**	%1,95

\*\*Epealdiko eguneroko hegazkortasuna edo azken aldiz inbertsio politika alda zenetik, epe hori, laburragoa balitz.

## Errenta finkoko zorroaren egoera

Iraupena	3,63
% Kreditu erakusketa	%61,45
Batez besteko rating-a	BBB-

## ENZAUGARRI OROKORRAK

Ondarea:	112.848.112,16
Komisioak guztira:	%1,60
Harpidetza komisioa:	%0,00
Errenboltso Komisioa:	%0,00
Arrisku-profila:	Baxua
Inbertsiorako gutxieneko epea:	-




## HILEKO IRUZKINA

Birusak mundu mailan uzten ari den hedapenaren inguruko datuak izugarriak badira ere, pandemiaren kontrolaren adierazle guztietan hobekuntza gero eta handiagoa hauteman da apirilean. Orain, arlo ekonomikoan jarri da arreta, covid-19ak mundu osoan eragindako kolpe ekonomikoak hiruhilekoaren BPGn izandako eragina barneratzen saiatze aldera, NDFren ustetan 2008an jasandakoak baino okerragoak izan baitaitezke. Horren ondorioz, agintariek presio handia dute, zeinak ekonomiarri laguntzeko eta aldi batez hobetzeko beharrezko pizgarriak eskaintzen jarraitu beharko dute. Zentzu horretan, nahiz eta Europako Estatu guztiek ekintza azkarrak

eta handiak burutu dituzten, oraingoz, ezinezkoa jarraitzen du izaten krisialdiari erantzun bateratua emateko jarrerak gerturatzea, zorra mutualizatze mekanismoari dagokionez edo epe ertainean suspertzeko planari dagokionez. Atlantikoaren beste aldean, AEBk dagoeneko 3 bilioi dolar metatu dituzte birusaren ondorioak arintzeko. Bien bitartean, hainbat estatuk konfinamenduaren aurkako manifestazioak ari dira egiten eta merkataritza harremanetan tentsioa areagotu da, birusaren hedapenean kontrol faltaren inguruan batak bestea salatzen duela eta. Banku zentralen aldetik, bai EBZk bai FED delakoak, behar den gutzia egiteko prest daudela adierazi dute, beharrezkoa den bitartean,

merkatuaren likidezia hobetu eta hobetzen laguntzeko. Merkatuak dagokionez, martxoko ikararen ondoren, apirilean, burtsek oxigenoa hartu dute, nahiz eta denek berdin ez. Osasun eustean, hainbat agintariren pizgarri ugarietan eta Banku Zentralen baldintzarik gabeko laguntzan oinarritu dira, eta baita Gilead enpresak garatutako erretrobiralak sortutako itxaropenean ere. S&P indizeak % 12tik gora lortu ditu apirilean eta, ondorioz, urteko galerak % 10etik behera daude dagoeneko. Bien bitartean, Europako indizeetan motelagoa izan da errebotea, eta jarrera nahiko heterogeneoa izan dute. Europako burtsak, oro har, gorantz egin du % 5etik gora, Dax alemanak % 9tik gora, eta Ibexak, ordea,

% 2. Japoniak ia % 7 igo du eta emergenteek, oro har, gainerako merkatuen ildotik jarraitu dute. Errenta finkoan, zor amerikarrak zein zor alemanak berriz ere izan dituzte errentagarritasunak mailarik baxuenetan. Aldiz, Europako herrialde periferikoetako zorra, Espainiarena edo Italiarena esaterako, presiopean egon da, eta nabarmena izan da tresna komunak falta izan direla haien ekonomian pandemiaren kalteak arintzeko esfortzu publikoek eragin ditzaketen desorekak maneiatzeko. Halere, haien diferentzialak areagotzeko nahiko mugatu dira EBZk zorra erosteari esker. Bestetik, petrolioak, Amerikarrak gehienbat, inoz izan duen eroriko handiena izan du, eta negatiboetan ere sartu da.



Dokumentu honen xedea informazioa ematea da eta inola ere ez da, ez kontratu-elementua, ez gomendioa, ez aholkularitza personalizatua, ez eskaintza, eta ez eskara ere. Dokumentu honek ez du ordetzen edozein inbertsio erabaki aurretik legez kontsultatu beharrezko informazioa; legezko informazioa nagusitzen da edozein desadostasun izanez gero. Inbertsioak merkatuaren gorabeheren mende daude, eta baloreetako eta beste finantzatresna batzuetako inbertsioetako berezko arriskuei lotuta; horregatik, Funtzaren eskuratzeko balioak eta lortutako errentagarritasunak gora nahiz behera egin lezakete, eta litekeena da inbertsioegileak hasieran inbertitutako zenbatekoa ez berreskuratzea. Funtzaren legezko informazio-dokumentu guztiak (IFD, liburuxka, aldizkako txostenak, etab.) www.kutxabankgestion.es webgunean, enfitate komertzializatzaileen webgunean eta CNMVren erregistroetan kontsultatu daitezke.

# BASKEPENSIONES ERRENTA FINKOA GAPI

## BASKEPENSIONESEN ONURAK:

- Aurrezteko finantza-tresna, zure etorkizuneko pentsio publikoa osatzen laguntzeko.
- Nahi duzun eta ahal duzun moduan aurrezteko malgutasun osoarekin.
- Inbertitzeko politika desberdina duten Baskepensiones desberdinen artean zure aurrezkoa askatasunez mugitzeko aukera, zure profilaren arabera hobeto egokitzeko.
- Konfiantza Kutxabanken. Epe luzerakoak izan daitezkeen eragiketetan garrantzitsua da.
- Onurak Kutxabaneko beste produktu batzuetan (gordailuetan, maileguetan, eta abarretan).

Eta gainera, banakako BGAE denez,  
**PFEZaren Zerga Oinarria murrizten duten ekarpenetarako zerga-tratamendu onenaz balia zaitzke.**

ZEURE  
**B**  
PLANA  
BASKE  
PENSIO  
NES  
BANAKAKO BGAEa  
Kutxabank SA  
Bazkide sustatzailea.  
Kutxabank Gestión  
IKESK SAU Ondare  
Kudeatzailea.



## PROBA EZAZU ERRETIRORAKO GURE SIMULAGAILUA.

Zure egoerari buruzko banakako txostena prestatuko dizugu. Simulagailuarekin zenbateko pentsioa kobratuko duzun, erretiroa hartutakoan bizimoduari eusteko zenbat aurreztu beharko duzun eta zure beharrianetara zein plan hobeto egokitzen zaizun kalkulatu ahal izango duzu.

**Hasi etorkizuna planifikatzen,  
Baskepensioneseekin:  
[SIMULAGAILUA](#)**